

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Heldu den astean, alkohola eta drogak kontrolatzeko kanpaina berri bat abiaraziko da

Foruzaingoarekin batera, Nafarroako Toki Poliziek eta Guardia Zibileko Trafiko Taldeak parte hartuko dute

Ostirala, 2018.eko abenduak 7

Foruzaingoak, Nafarroako Toki Poliziek eta Guardia Zibileko Trafiko Taldeak gidarien artean alkoholaren nahiz drogen kontsumoa kontrolatu eta hautemateko kanpaina berri batean parte hartuko dute abenduaren 10etik 16ra bitartean.

Urteko hainbat kanpainen egin ohi diren kontrol hauek arras lagungarriak dira pertsonen bolantean izan ohi duten jarrera aldarazteko. Nafarroako Bide-Segurtasunari buruzko Estrategiari atxikitako ekimen hauen bitartez, alkoholaren zein drogen eraginpean gidatzeak istripuak izateko arriskuak biderkatzen dituela gogorarazi nahi zaie gidariei, izan ere, horrelako substantzien kontsumoak hilkortasuna areagotzen du, istripuetan jasandako lesioei pronostiko okerragoa eragiten dien faktorea den aldetik.

% 0koa da tasa seguru bakarra

Aurreko kanpainenatik bildutako datuen arabera, legeak baimendutako mailen barneko alkoholemia-tasetan ere trafiko-istripua izateko arriskua areagotzen ahal da; ondorioz, gidatzeko tasa seguru bakarra % 0koa dela gogoratu nahi da. Odolean alkohol kontzentrazioak gora egin ahala, istripua izateko arriskua handiagoa da, baita istripuaren larritasuna ere.

Alkoholak gidatzeari eragiten dizkion efektuak asko eta aski ikasita daude. Hartara, litroko 0,3 eta 0,5 gramo bitarteko tasak izanez gero, erreakzio denbora luzatu eta abiaduraren pertzepzioa murrizten da, koordinazioari dagokion arazoak sortuz. Litroko 0,5 eta 0,8 gramo bitarteko tasekin, distantziari buruzko pertzepzioa murriztu eta ikusmeneko arazoak sortzen dira, eta litroko litroko 0,8 eta 1,5 gramo bitarteko tasak daudenean, pertzepzioari, arretari eta koordinazioari loturiko arazo larriak agertu eta logura areagotu ohi da. Azkenik, litroko 1,3 eta 0,5 gramo bitarteko tasetan, arazo larriak gertatu ohi dira pertzepzioan, arretan, kontrolean eta koordinazioan.

Horren kariaz, fisikoki nahiz mentalki egoera onean gaudela sinetsi arren, alkohola hartu ahala, istripua izateko arriskua areagotzen dugu. Hortaz, alkohola edan dutenek autoa gidatzea saihesti behar dugu.